



2026KO HERRIKO ETA ELKARGOKO HAUTESKUNDEEN KARIETARA, HENDAIA BILTZEN ZERREDA HERRITARRAK EUSKARA SUSTATZEKO ENGAIAMENDUA

ERRONKAK

- Euskararen erabilera atxiki eta handitu Hirian.
- Gure hizkuntza, kultura eta onomastika ondarea babestu.
- Herritarrak sentsibilizatu ondare hori atxikitzeko, bazterketa faktore bilakatu gabe.
- Gure ondarearen jakintza zabaldu hainbat publikoren artean: ikastetxeetako ikasleak, hendaia berriak, merkatariak, elkarteak, kirol eremua.

PROPOSAMENAK

- Euskararen udal aitortza egin.
- Euskara eta frantsesezko Komunikazio elebidun parekidea segurtatu Herriko Etxearen alor eta zerbitzu guztietan.
- Euskarako udal batzorde zabaldua eratu, elkarteei eta eragileei aukera eman ez hautetsiekin elkarlanean aritzeko.
- Euskararen erabilera sustatu elkarte eta kirol munduan nahiz eremu sozioekonomikoan.
- Murgiltze eredu bultzatu hezkuntzan, ezinbesteko tresna izanik euskararen transmisioan aitzinatzeko. Transmisioaren beste zutabea helduen euskalduntzea da.
- Publiko ez euskaldunari begirako dibulgazio lana egin.
- Lan toponimiko sakona burutu.

GOGOAN ATXIKI BEHARREKOA

- Euskara gure lurraldeko hizkuntza da, frantsesarekin batera. Ondorioz, hendaia guztien ondarearen zati da, euskaldun nahiz erdaldun izan.
- Euskara integrazio faktorea da, ez herritarrak bereizi eta banantzekoa: Hendaia Biltzenek hori argi du eta oinarri horren gainean lan egingen du gure mintzaira garatzeko.
- Baina euskararen egoera ahula da eta etorkizuna ez du segurtatua. UNESCOren arabera, hizkuntza baten gutieneko hiztun tasa % 30ekoa izan behar da, haren biziraupena bermatzeko. Gaur egun, euskararen tasa % 20koa baizik ez da, beraz, desagertzeko bidean. Lan egin behar dugu 2050erako % 30era emendatzeko tasa hori.